



LEIOA UDALA
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

UDALAREN OSOKO BILKURA **2008ko urriaren 2ko aparteko eta premiazko bilera**

BERTARATU DIRENAK

ALKATE-UDALBURUA

EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.

ZINEGOTZIAK

EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CUIEL jn.
EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.
EAJ-PNV.- M^o CARMEN URBIETA GONZALEZ and.
EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.
EAJ-PNV.- JON PELI LAZKANO ALZAGA jn.
EAJ-PNV.- JUAN CARLOS IBARRA ARETXABALETA jn.
EAJ-PNV.- AINARA GUZMÁN URRUTIA and.
PSE-EE.- ELSA LOPEZ DE TORRE CAMPO and.
PSE-EE.- LUIS MARIA PEREZ PEREZ jn.
PSE-EE.- PILAR GRADOS GARCIA and.
PSE-EE.- NEKANE JIMÉNEZ FERNANDEZ and.
PSE-EE.- JUAN CARLOS MARTINEZ LLAMAZARES jn.
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.
PP.- FERNANDO PINTO PALACIOS jn.
EB-B.- ISABEL GARCÍA GARCÍA and.
EB-B.- IÑAKI GOMENDIOURRUTIA SÁINZ jn.

NO ASISTEN:

EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.
PSE-EE.- J. ALFONSO LOPEZ AREVALILLO jn.

EUSKARA ITZULTZAILEA

KOLDO BIGURI jn.

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA

JAVIER BOLINAGA LEKUE jn.

Leioako udaletxean, bi mila eta zortziko urriaren biko arratsaldeko zazpiak direla, elizate honetako udalaren osoko bilkura bildu da aparteko eta premiazko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jauna** izan da bileraren burua eta **behin-behineko idazkariak, JAVIER BOLINAGA LEKUE jaunak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta egintzaz zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengoa osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die bileran parte hartzeko deia, hori guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1.b) artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 41.4 eta 79. artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, aparteko eta premiazko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

1.- OSOKO BILKURAREN ERABAKIA DEIALDIAREN PREMIARI BURUZ: Alkatetzaren 1.285/08 Dekretuaren berri eman da. Hona hemen hitzez hitz dioena:

“1.285/08 DEKRETUA:

Toki Araubidearen Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.c) eta 46 . artikuluek eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 79. artikulua eta horrekin bat datozenek Udalaren osoko bilkuraren aparteko eta premiazko bilera deitzeko aukera aipatzen dute.

Une honetan premiazkoa da Udalaren osoko bilkurak bi kontu onestea:

1.- 2008ko ekainaren 1ean izandako euri-jasek Leioan kaltetu dituzten pertsonen laguntzeko Udalaren zerga-neurriak.



LEIOA UDALA
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

2.- *Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Galetako Sailaren eta Leioako Udalaren artean hartu beharreko konpromisoak, 38. sektoreko (Leioandi) babestutako etxebizitzaren sustapenari buruz.*

Hona hemen aurreko kontuak lantzeko premiaren arrazoiak: lehenengoari dagokionez, beste erakunde batzuen aurrean laguntzak eskatzeko epea laster iraungiko da; bigarrenari dagokionez, berriz, komenigarria da hitzarmenaren epeak sartu nahi diren zerga laguntzekin estaltzea.

Horren ondorioz, HONEN bidez, Udalaren osoko bilkuraren aparteko eta premiazko bilera deitu nahi dut, 2008ko urriaren 2rako. Honako aztergai-zerrenda izango du:

1.- Osoko Bilkuraren erabakia, deialdiaren premiari buruz.

2.- 2008ko ekainaren 1ean izandako aparteko uholdeen kaltetuei laguntzeko zerga-neurriak.

3.- 38. sektoreko (Leioandi) babestutako etxebizitzaren sustapenari buruz Etxebizitza eta Gizarte Galetako Sailaren eta Leioako Udalaren arteko konpromiso-akordioa dela-eta Udalaren Bulego Teknikoak egindako txostena.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez onetsi du** Udalaren osoko bilkurak deialdia premiazkoa dela erabakitzea.

2.- 2008KO EKAINAREN 1EAN IZANDAKO APARTEKO UHOLDEEN KALTETUEI LAGUNTZEKO ZERGA-NEURRIAK. Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziazen 2008ko irailaren 30eko 139. zenbakidun irizpenaren berri eman da. Hona hemen irizpenak hitzez hitz dioena:

Ekainaren 10eko 3/2008 Foru Dekretu Arauemailearen, ekainaren 11ko 1593 Foru Aginduaren eta Udal Harremanen eta Herri Administrazioen foru diputatuaren 4265/2008 Foru Aginduaren bidez, premiazko zenbait neurri arautu dira, 2008ko ekainaren 1ean izandako aparteko uholdeek sortutako kalteak arintzeko.

3/2008 Foru Dekretu Arauemaileak Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kuoten salbuespena ezarri zuen, kaltetuek zein eragindako udalek batera bete beharreko baldintzak zehaztuta.

Leioako Udalak egokitzen jo du 2008ko ekitaldiko estolderia tasa ondorerik gabe uztea eragindako 68 higiezinatarako (etxebizitzak eta lokalak). Horiek Ondasun Higiezinaren gaineko Zergatik salbuetsita daude dagoeneko.

Horrez gain, uholdeek 26 ibilgailuri eragin diete. Egokia iruditu zaigu horietarako ere ondorerik gabe uztea 2008ko ekitaldiko Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga borondatez ordaintzeko epea maiatzaren 23an amaitu zela kontuan hartuta, bidezkoa da ibilgailu horiei 2008ko ekitaldian dagozkien zenbatekoak itzultzea. Horri dagokionez, zerrenda prestatu da, itzuli beharreko zenbatekoak proposatuta.



LEIOA UDALA
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Dena den, adierazi behar da ibilgailu batzuk ez direla agertzen Leioa udalerriko erroldan, nahiz eta beren jabeak udalerriko auzokoak izan. Leioan zerga hori ordaintzen ez dutenez, ez da bidezkoa inolako itzulketarik.

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Ekainaren 1ean izandako aparteko uholdeen kaltetuen 68 etxebizitza eta lokalak 2008ko ekitalditako estolderia tasa ordaintzetik salbuestea onetsiko da.
2. Leioa udalerrian Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga ordaintzen duten eta uholdeek kaltetu dituzten pertsonen zerga horren 2008ko ekitaldiko zenbatekoa itzultzea onetsiko da.
3. Udalaren osoko bilkurak egiten duen hurrengo bileraren aztergai-zerrendan ekainaren 1ean izandako aparteko uholdeen kaltetuentzako zerga-laguntzak onestea sartuko da.

BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: Aldeko hamazortzi boto, EAJ-PNVko zortzi ordezkarienak, bertaratutako PSE-EEko bost zinegotzienak, PPko hiru zinegotzienak eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotzienak; abstentzio bat ere egon da, EAJ-PNVkoa den alkate jaunarena, euri-jasek eragindako kalteak jasan izanagatik. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, **gehiengoaren aldeko botoaz erabaki du** behin betiko **onetsiko direla** 2008ko ekainaren 1ean izandako euri-jasek eragindako pertsonen laguntzeko zerga-neurriak, aurretik idatzitako irizpenean adierazten den bezala.

3.- 38. SEKTOREKO (LEIOANDI) BABESTUTAKO ETXEBIZITZEN SUSTAPENARI BURUZ ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAJETAKO SAILAREN ETA LEIOAKO UDALAREN ARTEKO KONPROMISO-AKORDIOA DELA-ETA UDALAREN BULEGO TEKNIKOAK EGINDAKO TXOSTENA. Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren 2008ko irailaren 30eko 140. zenbakidun irizpenaren berri eman da. Hona hemen irizpenak hitzez hitz dioena:

Leioako Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak “38. sektoreko (Leioandi) babestutako etxebizitzaren sustapenari buruzko konpromiso-akordioa” izeneko akordioa sinatu dute.

Agiri horren bederatzigarren baldintzan Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren zerga-onuren inguruko konpromiso batzuk ezarri dira. Aldi berean, horiek EIOZ arautzen duen zerga ordenantza aldatzea dakarte.

Alde horretatik, honako onura hauek proposatuko dira:

a) % 95era arteko hobaria gizarte-inguruabar bereziak direla-eta interes berezikotzat edo udalerrien onurarakotzat jotzen diren eraikuntza, instalazio edo obretarako.



LEIOA UDALA
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

b) % 50era arteko hobaria babes ofizialeko etxebizitzetarako eraikuntza, instalazio edo obretarako.

Letra honetan ezarritako hobaria aurreko letretakoak aplikatzearen emaitzako kuotari aplikatuko zaio, halakorik egonez gero.

c) % 90era arteko hobaria minusbaliatuei irisgarritasuna eta bizigarritasuna errazten dizkieten eraikuntza, instalazio edo obretarako.

Letra honetan ezarritako hobaria aurreko letretakoak aplikatzearen emaitzako kuotari aplikatuko zaio, halakorik egonez gero.

a) onura oso orokorra da, obra bat interes berezikotzat jotzeko gizarte-inguruabarrak zehaztu behar baitira. Horren ondorioz, onura hori mugatzeko, Udalaren Bulego Teknikoak txostena egin du. Horren arabera, onura hori honako kasu hauetan baino ezin da aplikatu:

“Onura honek herri administrazioek sustatutako babes publikoko etxebizitzetarako sustapenei eragingo die bakarrik. Sustapen horietan, etxebizitzetarako zati bat babes berezikoak, etxebizitza sozialak edo zuzkidura apartamentuak izan beharko dira, alokairu araubideari laguntzeko asmoz.”

Ogasun Arloak adierazi du babes ofizialeko etxebizitzetarako eraikuntza, instalazio edo obretarako % 50era arteko onura eta minusbaliatuei irisgarritasuna eta bizigarritasuna errazten dizkieten eraikuntza, instalazio edo obretarako % 50ekoa gaur egungo zerga ordenantzan jada agertzen direla. Legeak babes publikoko etxebizitzetarako baimentzen dituen onurei dagokienez, txostena egin da, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 10/89 Foru Araua aldatzeko den apirilaren 16ko 1/2008 Foru Arauak xedatzen duenari buruz, horrek balizko onurak arautzen baititu. Hona hemen, hitzez hitz:

a) atala: % 95eko hobaria jasoko dute inguruabar sozial, kultural eta historiko-artistikoak dituztelako eta enplegua eta aldi baterako bizitokia sustatzen dutelako interes bereziko edo herri erabilerako hartu diren eraikuntzek, instalazioek eta obrek.

b) atala: % 50era arteko hobaria jasoko dute babes publikoko etxebizitzetarako dagozkien eraikuntzek, instalazioek eta obrek eta % 95era artekoa, etxebizitza horiek etxebizitza sozialaren kalifikazioa badaukate.

Letra honetan ezarritako hobaria aurreko letretakoak aplikatzearen emaitzako kuotari aplikatuko zaio, halakorik egonez gero.

Hortik ondorioztatu da Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen Udalaren Zerga Ordenantzaren 14. artikulua honela idatzita egon behar dela:

14. artikulua.

Aurreko artikuluan adierazitako moduan kalkulaturako kuotari Udalak hobari hauek ezarriko dizkio:



LEIOA UDALA
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

a) % 95eko hobaria jasoko dute inguruabar sozial, kultural eta historiko-artistikoak dituztelako eta enplegua eta aldi baterako bizitokia sustatzen dutelako interes bereziko edo herri erabilerako hartu diren eraikuntzek, instalazioek eta obrek.

Interes bereziko edo herri erabilerako obratzat joko dira herri administrazioek sustatutako babes publikoko etxebizitzaren sustapenak. Sustapen horietan, etxebizitzaren zati bat babes berezikoak, etxebizitza sozialak edo zuzkidura apartamentuak izan beharko dira, alokairu araubideari laguntzeko asmoz.

% 95eko hobaria aurreko paragrafoan aipatutako obrei baino ez zaie aplikatuko.

b) % 50era arteko hobaria jasoko dute babes publikoko etxebizitzari dagozkien eraikuntzek, instalazioek eta obrek eta % 95era artekoa, etxebizitza horiek etxebizitza sozialen kalifikazioa badaukate.

c) % 50eko hobaria babes ofizialeko etxebizitzari lotutako eraikuntza, instalazio edo obretarako.

d) % 50eko hobaria eraikuntza, instalazio edo obretarako, etxebizitza partikularretan egin badira eta burutzapen materialeko aurrekontua 6.010,12 euro edo gutxiagokoa bada.

e) % 90eko hobaria, minusbaliatuei irisgarritasuna eta bizigarritasuna errazten dizkieten eta igogailuak jartzea bultzatzen duten eraikuntza, instalazio edo obretarako. Hobari hori ondore horretarako erabiltzen den zenbatekoaren gainean bakarrik kalkulatu da, obrak obra berriko proiektu baten barnean ez badaude eta modu independentean egiten badira.

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Aldeko irizpena emango zaie irizpen honetan proposatutako Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren hobariei.
2. Hartutako behin-behineko erabakia jendaurrean agertuko da 30 eguneko epean. Epe horretan interesdunek espedienteaz aztertu ahal izango dute, bai eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ere. Erreklamaziorik aurkeztu ezean, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin betiko onetsi dela ulertuko da.
3. Gai hau Udalaren osoko bilkurari aurkeztuko zaio, horri buruzko iritzia eman dezan, egingo duen hurrengo batzarrean.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki du onetsiko dela** 38. sektoreko (Leioandi) babestutako etxebizitzaren sustapenari buruz Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren eta Leioako Udalaren arteko konpromiso-akordioa dela-eta Udalaren Bulego Teknikoak egindako txostena, aurretik idatzitako irizpenean adierazten den bezala.



LEIOA UDALA
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Eta arratsaldeko zazpiak eta laurden direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

O.E.
ALKATEA

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA,